

## KOSTU EGITURA

Gure zerbitzuaren **kosturik** garrantzitsuenak **hasieran** egin behar dugun inbertsioa izango litzateke. Bertan, minibus egokitu bat eta furgoneta bat erosi beharko dugulako. Minibusaren kostua 25.000€ koa izango zen eta furgonetarena 3.000€ koa.

Bestalde, hilabetero, soldata batzuk ordaindu beharko dizkiegu bertako langileei. Horretarako Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzez eta erabiltzaileek ordaindu beharreko kuotaz baliatuko gara. **Kostu** hauek, **finkoak** izango lirateke. Langile bakoitzaren soldata: 1200€

Horrez gain, **kostu aldakorrak** ere edukiko genituzke gure enpresan. Bertan, ekintzaren arabera erosi beharreko materiala, objektuak sartuko genituzke.

Amaitzeko, sarreran aipatu dugun moduan, pentsatzen dugu gaur egun pertsona hauekiko eskklusioa ematen dela. Egia da azken urteotan, hainbat aurrerapen egon direla, baina hala ere, oraindik ere hainbat hutsune daudela ikusi daiteke. Horregatik, pentsatzen dugu guk sortutako proiektuak pertsona hauekiko hainbat behar asetu ditzazkela eta hauen garapenean lagundu dezakeela.